

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2020ko AZAROAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN TELEMATIKOKI EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2020ko azaroaren 26an, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Maialen Alonso Labandibar
Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Jesus Maria Tejada Cantero
Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2020ko urriaren 29an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 29 de octubre de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Larraulgo udalean Lan arriskuen prebentzioa egiteko lanen esleipena, hala bada./ Adjudicación de los trabajos de prevención de riesgos laborales en el Ayuntamiento de Larraul.**
- 5. Larraulgo Herri Ostatuari alokairua ez kobratzea, COVID 19k eragindako infekzioak ez zabaltzeko onetsitako aparteko neurriek irauten duten bitartean, hala bada./ Aprobar el no cobro del alquiler al Herri Ostatu de Larraul, durante el periodo de tiempo que duren las medidas extraordinarias aprobadas para contener la propagación de infecciones causadas por el COVID 19.**
- 6. Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia: terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan tasa” ez onartzeko konpromisoa, COVID 19k eragindako egoera eta ondorioak gutxienez mantentzen diren bitartean./Compromiso de no aprobar “la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales y demás terrenos de dominio público: terrazas e instalaciones complementarias en la vía pública” durante al menos se mantenga la situación y los efectos causados por el COVID 19./**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Beste batzuk/Otros.

8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2020 urteko urriaren 29an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 132/2020tik 147/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	804,77
IKASI	90,36
UR AGENTZIA	14,76
EZENARRO	905,08
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	788,71
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	236,52
BERTSOLARI ALDIZKARIA	29,00
ALKAIN	46,51
LUCAS ALAMO RUIZ Y OTRO C.B.	117,25
DISTRIBUCIONES LOPETEGI,S.L.	159,49
KIROLZER	36,75
DIONISIO ORMAZABAL	63,85
ZU ETA BIOD	1.259,82
SANIPLAST	16,06
MAQUELSA	10,19
MAQUELSA	8,80
LUCAS ALAMO RUIZ Y OTRO C.B.	270,80
MAQUELSA	14,75
FERRETERIA BARBE	50,90
IBERDROLA	172,88
IBERDROLA	169,29
IBERDROLA	72,64
IBERDROLA	22,58



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	191,30
TELEFONICA	182,81
TELEFONICA	149,35

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.885,22** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARRENGO PUNTUA

LARRAULGO UDALEAN LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, beste aurrekontu bat lortu bitartean.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO HERRI OSTATUARI ALOKAIURIA EZ KOB RATZEA, COVID 19k ERAGINDAKO INFEKZIOAK EZ ZABALTZEKO ONETSITAKO APARTEKO NEURRIEK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN, HALA BADA

Ikusirik COVID 19-ak eragindako infekzioak ez zabaltzeko onetsitako aparteko neurrien artean, ostalaritza eta jatetxe zerbitzuaren itxiera agindu duela.

Ikusirik Larraulgo udalaren, aipaturiko zerbitzua eskaintzen duen bakarrak, Larraulgo Herri ostatuarena dela, Udalaren jabetzakoa, kudeaketa Iker Uranga jaunak eramaten duena.


Ikusita, Larraulgo Herri Ostatuako kudeatzaileak, hilero Larraulgo Udalarari dagokion alokairua ordaindu behar diola.

Ikusita, Lehendakariak onarturiko 36/2020 dekretua, proposatzen da, neurri hauek mantentzen diren bitartean, Herri Ostatuari dagokion alokairua ez kobratzea.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: "Lehendakariaren, 36/2020 DEKRETUA, 2020ko urriaren 26koa, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko"



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

neurriak mantentzen diren bitartean, Larraulgo Herri Ostatuari alokairua ez kobratzeko onespena ematea.

SEIGARREN PUNTUA

UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA: TERRAZA ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK BIDE PUBLIKOEN TASA” EZ ONARTZEKO KONPROMISOA, COVID 19k ERAGINDAKO EGOERA ETA ONDORIOAK GUTXIENEZ MANTENTZEN DIREN BITARTEAN

Ikusirik, Larraulgo Ordenantza fiskalaren artean, Udaleko bide publikoetako lurzoru, lur-gain eta lur-azpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia: terraza eta instalazio osagarriak bide publikoen tasa onartu daitekeela, nahiz eta oraingoz onartua ez egon.

Ikusirik, 2020 urtean COVID 19ak eragindako egoerak eta hauek saihesteko onartutako neurriak, herrian dugun ostalaritza eta jatetxe bakarra hainbat hilabeteetan itxita egon behar izan duela, honek dakarren galera ekonomikoarekin.

Guzti hau kontutan harturik eta Udaletxe honek ostalaritza eta jatetxe zerbitzua eskaintzen duen Herri Ostatuari, gaur egungo egoerak kalte gehiagorik sortu ez dezan, Larraulgo Udalak gutxienez, 2020 eta 2021 urteetan, Udaleko bide publikoetako lurzoru, lur-gain eta lur-azpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia: terraza eta instalazio osagarriak bide publikoen tasa, ez onartzeko konpromisoa onartzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo Udalak, 2020 eta 2021 urtetarako Udaleko bide publikoetako lurzoru, lur-gain eta lur-azpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia: terraza eta instalazio osagarriak bide publikoen tasa, ez onartzeko konpromisoa onartzea.


ZAZPIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:10 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.